

Iturralde y Suiten mendeurrenean

Rosa Miren
Pagola

El centenario del fallecimiento de Juan Iturralde y Suit ha pasado casi inadvertido. No obstante, **Hermes** ha querido recordar la figura de este preclaro navarro, ferviente impulsor de la corriente vasco-foralista precursora del nacionalismo vasco. Brillante escritor y orador, pintor y literato fue figura relevante en la sociedad navarra y reconocido historiador y arqueólogo incluso en el exterior. Defensor nato de la identidad vasca de los navarros y del euskera como lengua primera y propia de Navarra, veía en ella la clave del ser vasco y de la supervivencia de nuestro pueblo. No sólo la defendió siempre con denuesto en sus escritos, sino que intervino en la organización de diversas actividades culturales y luchó por su presencia en las aulas.

LEHENENGO URTEAK

Juan Iturralde Suit Iribarne Arranbide Iruñean, Nafarroako hiriburuan, jaio zen 1840ko urriaren 23an. Gurasoen aldetik Euskal Herriaren iparraldean zuen jatorria eta nobleziarekin ere ba omen zuen loturarik. Aitaren aldeko aiton-amonak Nafarroa Behereko Bankan jaio eta bizitakoak ziren. Amaren aldetik, aitona, Zuberoako barkoxtarra zen eta amona, Nafarroa Behereko Aldudekoa. Bere aita banketxeko zuzendaria izan zen, 'Banco de Pamplona' deitzen zenekoa lehenengo, eta hau Iruñeko 'Banco de España'ren sukursal bihurtu zenean, honena ondoren. Beraz, etxe oneko umea zela esan daiteke.

Hautzaroa eta lehen gaztaroa Iruñean igaro zituen, goi-mailako ikasketak egiteko alde egin behar izan zuen arte. Batxilergoa amaitu ondoren, ikasle ona eta argia baitzen, Bartzelonara joan zen ingeniarritza ikasketak egitera. Baina osasun arazo larrikoak izan zituenez, karrera hura utzarazi zioten eta, haien ordeztan, merkataritza ikasketak egin zituen Bordeleko Merkatalgo Eskolan, beti ere aitak zuen lanbide berari jarraitzeko asmoz edo ustetan. Aise eraman zituen, eta karrera amaierako saria ere berari eman zioten. Karrera horrekin hasi zitekeen lanean Iruñean, baina ez zuen garbi ikusten bere burua eta bizitza dirukontutan murgildua. Juan jite bereziko gaztea zen, sentsibiltate handiko pertsona, eta gazterik erakutsi zituen marrazki eta pinturarako joera eta trebezia eta idazteko ere gaitasun eta erraztasuna. Hortik sortuko zitzaion Parisera joateko asmoa, alde batetik bere arte ahalmenak garatzeko eta, bestetik, bere burua kulturalki eta giza zientzietan hobeki prestatzeko. Han egin zuen egonaldia hagitz probetxugarri gertatu zitzaion, orduan Paris baitzen munduko gunerik eragingarriena kultur munduan oro har.

Formazio zabala eta aberatsa izan zuen, beraz: nola teknika eta ekonomiako gaitan, nola humanitateetan eta arteetan prestatua aurkitzen zen. Horiei gaineratu dakieke giro ezberdin eta aurreratuena ezagutzeko izan zuen aukera. Guzti hori elkartzen bada Iturrালের jaiera eta maitasunekin eta bizi izan zuen egoera historikoarekin, errazago ulertu ahal izango da bere bizitzan egin zuen lan aunitzen bilakabidea, nahiz idazle, nahiz Nafarroaren historialari eta arkeologo, nahiz Nafarroaren eta euskararen eta Euskal Herriaren aldeko hainbeste ekintzen bultzatzaile bezala.

POLIFAZETIKOA ETA GIZATASUN HAN- DIKOA

Zenbait urte kanpoan pasa zituen, baina artean gazterik itzuli zen Iruñera, eta betiko lagunekin bizitza berrartu zuen. Gazte alaia eta bizia eta atsegina zenez, irudiz ere erakargarria, eta Iruñeko bizitzan eta aferetan interesa jartzen zuenez, arin egin zen ezaguna eta estimatua gizartearen. Horregatik eta zuen prestakuntzagatik, Iruñeko udaleko zinegotzi izendatu zuen Nafarroako Gobernuak Goi Elkarteak 1868ko irailean, eta bizpahiru hilabetera, hauteskundeetan, zinegotzi hautatua izan zen. Batzorde ezberdinetako partaide izendatu zuten berehala, hala nola Ongintzako, Ogasunetako, Musika eta Marrazkilaritzako, eta beste batzorde batzuetako kide ere izan zen, esaterako, ur horniketako edo Irakaskuntza Publikoko Batzordeko. Lan ona egin zuen oro har eta urte aunitz eman zituen zinegotzigoan.

Horrek ez zion eragotzi beste ekintza aunitzetan sartua ibiltzea eta bere zaletasunak lantzea. Marrazketa eta pintura ez zituen sekula utzi, horiena baitzen bere barne-jaidurik tinkoena. Arte-sen hori idazketan ere agertu zuen egunkari eta aldizkarietan, baina hizkuntzaren erabilera literarioak liluratzan zuen batez ere, eta horretan jardun zuen batik bat bizitzaren azken urteetara arte.

Historiazale gisa, Nafarroako historiak erakartzen zuen erabat. Jakintsua zen horretaz bere lanek agertzen dutenez eta garaiko lekukoek ere adierazten duten bezala. Historiaurreko le-

henengo aurkikuntza arkeologikoak berak egin zituen Nafarroan, horrekin ikuspegi berri bide emanez. Erdi Aroko monumentuak eta gertakizunak ere aztertu eta hainbertze ekarpen garrantzitsu egin zituen. *Nafarroako Monumentu Historiko-Artistikoaren Batzordea* ez zen aspaldikoa, baina izen handia hartuz joan zen urte haietan, eta Iturraldek izan zuen horretan zerikusirik eta eraginik, buru-belarri sartua baitzegoen Batzordeak zituen helburu eta eginkizunetan. Batzordeko idazkari eta geroago lehendakariorde ere izan zen. Hitz batez, entzute handiko pertsona bihurtu zen arlo honetan, eta horren lekuko dira *San Fernando* eta *Historiako Errege Akademiako* kide izendatua izan zela.

Azken hamabi urte-edo Bartzelonan egin zituen, hara joan zelako semearen osasun arazoak eraginda. Ez zion, hala ere, hemengo jarraipena egiteari utzi eta maiz etortzen zen asmo berriak abiatu nahian. Han hil zen 1909ko abuztuaren 17an, eta haren gorpua Iruñera ekarria izan zen eta Iruñeko Udal-Korporazioak jaso zuen, eta hiletetan eta hilobiratu arte lagundu zuen.

Iruñeko Udalak eskaini zion errespetuzko eta eskerroneko azken harrera ofizialak agertzen du zein itzal eta estima handiko pertsona izan zen Juan Iturralde eta zein barneratua zuen Iruñeko gizarteak haren irudi ona eta oroitzapena. Izan ere, Iturrালের jaidura eta grina Nafarroa izan zen, bere izatean eta historian, bere euskaltasunean, bere lege eta ohidura zaharretan, bere harrietan eta eraikinetan. Dena loturik ikusten zuen Nafarroaren nortasun paregabean. Eta hori bazekiten iruindarrek eta nafarrek.

Haren izaerari dagokionez, zail gertatzen da pertsona bati buruz hainbeste laudorio goresgarri irakurtzea gertutik ezagutu zuten lumetan. Ez da lagun min izan zuen Campiónek bihotzez jasotzen duela; oraino deigarriagoak dira haren aiurri onaz

Iturrালের jaidura eta grina Nafarroa izan zen, bere izatean eta historian, bere euskaltasunean, bere lege eta ohidura zaharretan, bere harrietan eta eraikinetan.

eta harek zuen bizitza eta baloreen ikuspegiez Mañé y Flaquer-ek, Carmelo de Echegarayk edo Julio Altadillek esaten dituztenak. Aipatu diren dohain ugarietz gain, adimen argia, jakinduria zabaldua eta borondante nekagaitza zuen lanerako, eta pertsonarik atseginena zen traturako, izate hoberenekoak, lagunaren laguna, familiaren maitale eta euslea eta Nafarroako eta Euskal Herriko semerik zintzoen eta kartsuena. Altadillek pertsonaren alderdi biak hartuz zioenez, "Aingeruzko arima eta noble-irudia zituen Iturraldeak"¹.

Elkargo honi zor zaio *Zazpiak bat* lemarek sorrera.

FORUEN DEFENTSA: NAFARROA ETA EUSKAL HERRIA

Deigarri gertatuko litzazuke haren barrenak zeukan sua Euskal Herriatik at bere gaztaroa ikasketak egiten bizi izan zuen pertsona batean, baina parean tokatu zitzaizkion urteek garbi erakutsi zioten zein zen bere herria. Lehen Karlistada bukatu zen urtean jaio zen. Aurreko urtean Bergarako Hitzarmena sinatu zen, eta horren ondorioz eman zen 1839ko legea, zeinetan Nafarroako eta hegoaldeko beste hiru euskal lurraldeen foruak berresten edo segurtatzen ziren, baina berrespenak, listorrek bezala, atzean eztena zeraman: "sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía". Eta eztenak uste baino arinago bete zuen bere egitekoa: 1841ean 'Nafarroako Lege Paktua' izenez ezaguna den legea jarri zen indarrean. Artean urtea betetzeko zuen lege hori onartu zenean. Horra zein giroan jaio zen. Ez zaie arrazoirik falta Iturralde Nafarroako Erresuman jaio zen azkenetariko bat izan zela esaten dutenei. Lege horrek kitatu zuen Nafarroa Erresuma eta bihurtu zuen Nafarroa Espainiako probintzia, Erresumari zegozkion eskubide eta ahalmenak ukatuz. Galdu zituen Gorteak, Errege Kontseilua, Aduana, diru-txanpona egiteko eskubidea, legegintza eta epailletza eskukotasunak eta ezarri zitzaion Estatuari zuzeneko zerga ordaindu beharra, garai hartan 1.800.000 errealetan gautatua; bestalde, derrigorrezko soldadutza inposatu zitzaion, ordura arte libre ziren gazteak soldadutza egitera behartuz. Halaber, foruak ere aunitz murriztu zitzaizkion.

Hurrengo urteetan ere foruak, errespetatu, errespetatzen ziren, batez ere ahoz, beti ere murriztuz joan baziren ere. Gainera, foruen aurkako

kanpainak eragiten zituen Madrileko Gobernuak garaiko egunkarien laguntzaz, batez ere euskal lurraldeen inguruko probintziak zirikatuz foruen aurka. Helburua bakarra zen: edozein ezberdintasun ezabatu eta edozein eskubide ukatu. Honek, esan bezala, lau lurraldeak hartzen zituen batera, Nafarroaren kasuan berezitasunak nabarmenagoak izan arren. Aurretik ere euskal lurraldeen batasunaren sentipena bazen euskal gizartean gauza natural bezala, baina jokabide horrek Euskal Herriaren nortasunaren zentzua berpiztea ekarri zuen berekin.

Bigarren karlistadaren amaiera urtea (1876) eta urte bereko legea hegoaldeko beste euskal lurraldeen foruak deuseztatuz hartzen da Nafarroa eta beste hiru herrialdeen batasunaren eta herri-kontzientziaren esnatzearen hasiera data bezala. Baina hori bazetorren astiro-astiro mamitzen, batez ere 1841eko legearen ondoren. Lege horrek Nafarroari kendu zizkion eskubide historikoak, baina berekin zekarren hari eginikoa beste hiru lurraldeei ere berdintsu gertatuko zitzaie. Eta bilakabide horren lekuko ona da Iturralderen pertsona. Ez zen bakarra, noski, baina bera izan zen 1868. urtean euskarazko elkarte bat sortu nahi izan zuena euskara eta euskal kultura bultzatzeko helburuaz eta beste hiru lurraldeetako kideekin harremanak izateko asmoz². Pablo Ilarregi, Iruñeko Udaleko idazkari zen historialaria, Nicasio Landa sendagile eta jakintsua eta Esteban Obanos apaiza izan zituen lagun. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako intelektualekin harremanetan jarri ziren, baina egitasmoak ez zuen aintzina jarraitzerik izan, 1872. urtean bigarren karlistada hasi baitzen. Deigarria da, nolana ere, zein sartua eta ongi ikusia zegoen Iturralde, 27 urteko gaztea, Iruñeko gizartean bera baino hagitzik ere adintsuagoak eta izen handiagokoak ziren pertsonak bildu ahal izateko horrelako ekintza batean.

Dena den, gizainguruan bizi zen Nafarroaren egoera jasangaitza eta horrek loturik zeraman herri bezala zuen nortasunaren iraupenaren kezka bizia. Nafarroako Diputazioak berak ere hegoaldeko euskal lurraldeen elkarketa bultzatzeko asmoa zabaldu zuen 1866an³. Hurrengo urtean Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako diputazioei idatzi luze bat bidali zien Diputatu Nagusia zen Zabalkak, zeinean hastape-netik azpimarratzen zen Nafarroak beste hirurekin zuen batasuna jatorrian, hizkuntzan, historian, tradizioan, sinestean, e.a., zeinek egiten baititu, zioen,

“probintzia anaiak ez ezik, probintzia bikiak ere”. Eta proposatu zuten lehenbiziko egitasmoa lau lurraldeen artean Euskal-Nafar Unibertsitatea-‘Universidad vasco-navarra’ alegia- sortzea izan zen. Eta harremanak usutzen eta estutzen ari zirelarik, 1868ko *Iraultza* gertatu zen irailean eta dena bertan behera utzi zen.

Iturraldearen ekinbidea eten egin zen, baina ez zen galdu, alderantziz baizik. Azken Karlistadaren ondorioz, 1876. urtean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak beraien foruak galdu zituztenean, Foruak ikono bat bezala gertatu ziren, ez Euskal Herriaren identitatearen eta eskubideen adierazgarri bakarrik, baizik askatasunaren ideia ernamuin ere bai. Foruen kontzeptuan euskara eta enda jasotzen ziren eta, Nafarroan bereziki, XVI. mendean galdu zen Erresuma Zaharra, garai batean euskal lurralde guztiak bildu zituena, suharki errebindikatzeko zen.

ASOCIACIÓN EUSKARA DE NAVARRA - NAFARROAKO EUSKARAZKO ELKARGOA

Juan Iturralde bere luma eta ahaleginak afera nagusi horren alde bideratuak zituen aitzinetik ere, baina orain iraganeko egitasmo hura berpiztuko zuen. Campián artean gaztea zen, hogeita bi urte betetzeko zituen Nafarroako foruei buruzko lana, “Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra”, 1876ko otsailean argitaratu zuenean. Hortik etorriko zen Iturralde eta Campiánen arteko ezagutza pertsonalagoa; beraien familiek elkar ezagutzen zuten, baina lagun bien adinean zuten aldea handikoa zen. Campiánen lan horretan euskara da Nafarroaren nortasun historikoaren muina eta herri bezala behar zuen bilakabidearen ezinbesteko zutabea. Ideia horiekin ez da harritzekoa haien adiskidetasuna eta lankidetasuna ia bapatean sortu eta garatzea. Eta hurrengo urtean, Iturralde, aspaldiko ideia berrartuz eta zenbait arazo gainditu ondoren, 1877ko urriaren 23an, hamahiru lagun bildu zituen bere etxean. Denak ezagunak ziren eta gizartean eragina zutenak. Batzar hartan ezarri ziren *Asociación Euskara de Navarra - Nafarroako Euskarazko Elkargoa* ospetsuaren lehenengo zimentarriak. Handik gutxira, urte bereko azaroaren 7an, estatutuak eta araudia onartu zituzten eta hurrengo urteko Errege Egunean publikoan aurkeztu zen bere Zuzendaritza-batzordearekin batera. Lehendakari Esteban Obanos izan zen eta Juan Iturralde, Idazkari. Horrela zio-

Iturralde berak diseinatu zuen Elkargoaren zigilua.

ten: “El objeto de esta Sociedad es conservar y propagar la lengua, literatura é historia vasco-navarras, estudiar su legislación y procurar cuanto tienda al bienestar moral y material del país”⁴. Urtebetean 371 bazkidek osatzen zuten Elkargoa, ohorezko zenbait kide aipagarri ere zituelarik: Sagarminaga, Moraza, Manterola, Iparragirre, Becerro de Bengoa, Bonaparte Printzea eta Vinson, besteak beste.

Elkargo honi zor zaio *Zazpiak bat* lemaen sorrera. Aurretik erabiliak eta hedatuak ziren ‘Iruak-bat’ eta ‘Laurak-bat’, baina biak murriztu gelditzen zitzaizkien Elkargoko kideei. Iturralderi, jatorria Euskal Herriko iparraldean zuenez, ez zitzaion zail gertatuko ikusmolde horretara iristea eta lagunak horretara erakartzea ere. Adierazgarria da, bestalde, Iturralde berak diseinatu zuen Elkargoaren zigilua: domina borobilean zazpi mendiren gainean Gernikako Arbola, honen enborrean Nafarroako armaria bere koroarekin eta arbola gainean gurutzea; ertz-inguru osoan Elkargoaren lema: *Jaungoikoa eta Fueroak, Dios y Fueros*.

Elkargoak lan handia egin zuen euskararen eta foruen eta Euskal Herriaren batasunaren aldeko ideiak zabaltzen eta euskara laguntzeko ekintzak antolatzen. Kulturako gizonak zirenez gehienbat Elkargoko kideek, egunkariak eta aldizkariak sortu zituzten ideia horiek oihartzun handiagoa lor zezaten. Egunkarietan ditugu ‘El Arga’, honen ondoren ‘Lau-Buru’, hauen zuzendaria Campián izan zelarik eta, azkenik, ‘El Aralar’. Aldizkarietan, aipagarriak dira ‘La Ilustración de Navarra’, hamaboskaria, ‘Revista del Antiguo Reino de Navarra’, hau ere Campiánekin zuzendua, eta ‘Revista Euskara’.

Euskarazko Elkargoak euskararen eta Nafarroaren eta Euskal Herriaren, elkarren artean inolako bereizketarik egin gabe, onginahia zituen oinarri bezala, beti ere kideen gainerako ideiak guztiz errespetatuz. Izan ere, aurreko urteetan -1875/01/29 eta 1875/02/07ko dekretuetan, besteak beste- aunitz murriztu zen inprenta askatasuna eta baita elkartzeko askatasuna ere; beraz, kasu egin behar zen, debekuak eta zigorrak aski gogorrak baitziren. Baina alderdi politikoek izan ziren interesatuenak *Elkargoaren* helburuak eta bazkideen ideia politikoak nahasten. *Éuskaros*, eta euskarianos ere, deitzen

zieten kideei eta arrakasta izan zuen izenak. Elkargokoek ere ez zioten muzinik egin, eta 1881. urtean izen horrekin aurkeztu ziren udal hauteskundeetara Iruñean, eta 'Jaungoikoa eta Foruak' lemapean gehiengo osoa eta alkatetza lortu zuten. Eta berdin 1883an. Orduan hasi zen azpi-jokoa eta izen txarra emateko aurkakoen politika. Urduriaren urduriz, Madrildik ere kanpaina gaitza

eratu zen Elkargoaren izen ona laidoztatu eta kideak ere bortxatzeko. Presioa handia izan zen eta, horren eraginez, zenbait kidek atzera egin zuen eta poliki-poliki Elkargoa ere motelduz joan zen, 1897ko ekainaren 6an, hogeitun urte betetzear zegoelarik, itxi egin zelarik. Dena den, *Nafarroako Euskarazko Elkargoak* erein zituen ideiak nonahi ernetzen hasiak ziren, eta izan zituen helburuen eta sustatu zituen ekintzen testigua beste lurraldeek jaso zuten.

EUSKARAREN ERAGILE

Ez dakigu Juan Iturralde euskaraz zekien edo ez, baina bere lanetan sartu zituen euskal hitzek, euskararekiko agertzen duen atxikimenduak eta euskararen alde egin zituen ahaleginek euskara ezagutzen zuela pentsarazten dute. Antonio Arzaek zuzendu zion olerkiak ere hori bera ematen du aditzera: "Zer naizu esatea, adiskidea, / Donostiatik? / ¿Zer Ernanitik, zurea izaten dan / Uda-kabitik? [...] / Orain, lagun maitea, ¿zuk zer diozu / Nafar alde-tik? / Esan zadazu anaiak geradela / ¡Bai! ... ¡Bio-tzetik!"⁵. Nolanahi ere, euskarari buruz idatzi zituen idazkiak izugarri ederrak dira eta indar handiz jaso zuen euskararen nortasuna eta balioa. Euskararen eta Nafarroaren euskalduntasunaren defendatzaile sutsua zen eta euskara Nafarroako lehen eta bertako hizkuntza zela zioen. Iturralde euskararekin lotzen zuen herriaren izatea: enda, euskaldunen moralitasuna, errespetua, askatasuna; hitz batez, euskaldunen ezaugarriak euskarari itsatsirik agertzen zitzaizkion eta euskara gordez gero, euskal sena eta nortasuna ere etorkizunerako bermatuak ikusten zituen. Begira zer dioen Elkargoaren aipaturiko programak: "Si el pueblo euskaro, cuya raza, cuyo genio peculiar, cuyas costumbres son [...] ha podido conservar su personalidad, y se ha mantenido con su genuino carácter y sus varoniles virtudes a través de los siglos, es indudablemente porque supo guardar, como en depósito sagrado, esa antiquísima lengua vascongada [...]. A impedir que desaparezca tan admirable idioma, y a propagarlo, si posible fuese, se dedicará con empeño la Asociación"⁶. Barne-barnean

zeraman euskararen kezka, eta euskararen ikusten zuen Euskal Herriaren egoera tamalgarriaren salbamena. Campiónek dakartza hark bidalitako gutun batetik jasoak: "Cuando una tarde del último verano recorriamos juntos (Campión eta biek) las cercanías de esta población (Pamplona), y contemplábamos con tristeza nuestros escuetos montes y nos lamentábamos de la tala material y moral que sistemáticamente se lleva a cabo en nuestro infortunado país; cuando considerábamos que todo lo que constituye la fisonomía especial de esta noble tierra va desapareciendo [...]; cuando buscando remedio a tanto mal, conveníamos en que era tal vez el medio más seguro de atajarlo, la conservación y propagación de ese mismo idioma, monumento grandioso a cuya sombra se han mantenido puras, desde remotísimas edades, las costumbres, las instituciones y las creencias de la libre raza euskara"⁷.

Ahalegindu zen bere aldetik euskararen aldeko ekintzak eragiten, literatur lehiaketa aipagarria Iruñean, euskal jaiak Nafarroan d'Abbadie-ren laguntzaz, eta bereziki *Revista Euskara*-n euskararen presentzia ziurtatzen, euskarazko idazleen kolaborazioa eta lanak bilatzen. Baina haren ekintzarik aipagarrienak euskararen irakaskuntzaren inguruan izan ziren. Eskolan haurrek euskaraz egitea debekatu eta zigortzea biziki salatzen zuen. Euskararen irakaskuntza eskoletan sartzeko ahaleginak ere egin zituen. Euskal katedra bat sortzen ere saiatu ziren Elkargotik, eta Madrileko ministerio batera ere euskararen erabilera indartzeko laguntza eskakizuna bidali zuten.

REVISTA EUSKARA

Hauxe izan zen *Euskarazko Elkargoaren* emaitzarik hoberenetakoa eta hark zituen helburuak betetzeko tresnarik egokiena. *Revista Euskara* 1878an sortu zen. Lehenengo zuzendaria Nicasio Landa, izen handiko sendagile eta historia-gile ospetsua, izan zen, eta Juan Iturralde jarraitu zion erantzukizun horretan. Elkargoko kideez eta nafarrez gain, garaiko idazlerik entzutetsuenek idazten zuten: Duvoisinek, Becerro de Bengoa, Vicente Arana, Vinson, Elissanburu, Ramon Artola, Jose Manterola, Agustin Chaho, Antonio Trueba, Serafin Baroja, Delmas, Ricardo Becerro de Bengoa eta beste aunitzek. Bonapartek ere aldizkari honetan argitaratu zituen zenbait lan.

Aldizkarian tratatutako gaiak benetan ugarriak izan ziren: Nafarroako eta Euskal Herriko historia, etnografia, paleografia, biografiak, foru-

Iturraldek
euskararekin
lotzen zuen
herriaren izatea.

zuzenbidea, saiakera, euskal hizkuntza eta literatura, artea eta abar. Euskaraz idatzitako testuak aunitz dira, gehienak olerkiak edo bertsoan idatzitako elezahar egokituak eta lehiaketa literarioetan eta Lore-jokoetan saritutakoak, horrela euskarari presentzia adierazgarria eta maila batekoa eskainiz. Baina bada beste literatura bat euskal gaietz gaztelaniaz idazten dena ere. Eta hainbat kasutan hizkuntza batekoak bestera itzultzen dira eta alderantziz. Itzulpen hauetan Antonio Trueba aurkitzen dugu euskaratik gaztelaniara testuak itzultzen, hala nola *Gernikako Arbola*, *Leloren kanta edo Arrese y Beitiaren Bizkaitar zarrak eta Erromatarrak*, azken honi ohar hau jaritzen diolarik: “Esta versión ha sido hecha por D. Antonio de Trueba teniendo a la vista otra palabra por palabra que, para mejor interpretación de los conceptos pidió el autor”⁸. Azken xehetasun bezala aipagarria da nola Elkargoaren 1883ko urtarrilaren 14ko batzarrean onartu zen Axularren ohorez Urdazubin oroitarri bat eraikitzeke Iturralderen proposamena .

Aldizkariaren maila ona zen, baina zail gertatzen zen behar bezala eustea, kolaborazioak urritzen joan ziren eta geroago eta maizago bete behar zen Iturralde beraren lanez eta saritutako lan literarioez. Horrekin ongi jabetuak zeuden Iturralde bera, zuzendari bezala, eta Campión, erredaktorea. Eta horrela agertu zioten 1883ko azaroaren 30ean Elkargoko lehendakariari bidali zioten idatzian erantzukizuna uzteko asmo sendoa agertuz: “Esta decepción [...] ha sido causa de que pesase sobre nosotros exclusivamente la difícil tarea de sostener el interés de la *Revista* [...] y este es también el motivo principal de que renunciemos nuestros cargos [...]. Lo que antecede no significa, en manera alguna, que nos separemos de esta *Revista*, la más antigua en su clase del país Vasconavarro...”¹⁰. Dirudenez ez zegoen eusterik, eta tamalgarria izan zen hain maila jaso lortu zuen eta beste euskal lurraldeetako eneredu eta eragile izan zena itxi egin beharra.

ERAGIN LUZEKO BIZITZA

Juan Iturralde y Suit, esan bezala, pertsona polifazetikoak izan zen eta ez dago hemen haren alderdi desberdinak azaltzerik, baina esan daiteke euskararen eta Nafarroaren eta Euskal Herriaren kezka eta ardura bizi zuten bere garaiko jende-

rik kultuenak –Florencio Ansoleaga, Estanislao Aranzadi, Nicasio Landa, Esteban Obanos, Pablo Ilaregui ere bai aurretik, Arturo Campión...- bildu zituela bere inguruan eta haiekin batera egitasmo garrantzitsu eta eraginkorrak aurrera eramane zituela. Ekintzak eta Elkargoa bera ere desagertu ziren, baina haien eragina ez zen suntsitu, alderantziz baizik, bide bat seinatu eta ireki zuten garbiri, eta bide horretatik abiatuz sortuko ziren Euskal Herriaren izatea, historia eta nortasuna aldarrikatu eta errebindikatuko zuten pertsonak eta mugimenduak. Azken urteetan goibel xamar bazebilen ere, Iturralde ez zuen sekula etsi ez ideiatan ez eta ideialetan, eta itxaropen hori gorde zuen beti bere bihotzean. Hunkigarriak dira azken urteetan bere seme-alabei zuzendu zizkien hitzak: “Izan bitez lerro hauek nire arimaren erretratua neurri batean, eta haurrak zinatenean entzun zenizkidaten elezahar eta ipuinen oroitzapena, Jainkoaz, familiaz eta gure Aberriaz erran nizkizuenak batez ere, nik neure ariman gurtu ditudan horiek, zuek ere zuenean gordeko dituzuen itxaropenez, bizitza guztiz hits honetako bidaia egiten duzuen bitartean”¹¹.

OHARRAK

1. Julio Altadill: “Iturralde poseía alma de ángel y figura de noble”, *Navarra, Geografía General del País Vasco-Navarro-n*, (4. alea), Ed. Alberto Martín, Barcelona, 1915. 1000. or.
2. Arturo Campión: *Obras de D. Juan Iturralde y Suit, Cuentos, leyendas y descripciones euskaras*, (1. alea), Pamplona, 1912, LX or.
3. M^a Sagrario Martínez Beloki: “Las relaciones entre la Diputación Navarra y las provincias vascongadas en 1866”, *IX Congreso de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza, 1984 (9. alea), Donostia-San Sebastián, 463 – 465 or. [on line] <http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/congresos/09/09463465.pdf> [jasotako data 2009ko azaroaren 24a].
4. Euskarazko testua, gaztelaniazkoaren itzulpen bezala aurkeztua, askatasun handiz egina dago, eta kasu honetan honela dio: “Euskarazko Elkargoaren asmoak diré, gordetzea, galtzera utzi gabe, ta edatzea aldaitequen gucian euskarazko mintzaríoa; ongui ezagutzea gure aurrecoac itzcunza eder onequin erran eta eguin dituzten on guztiaic; alic eta onguiena icastea nola dembora gucietan bere lege jakintsuekin [...]; eta azquenean Euscal-errien onac aleguin guztiaz obeagotzea”. *Revista Euskara*, 1. go urtea, 1878. 5-6. or.
5. Antonio Arzac: “Itz bi. D. Juan Iturralde eta Suit Jaunári”, *Revista Euskara*, V. urtea, 1882, 288 or.
6. *Revista Euskara*, I. urtea, Pamplona, 1878, 3-4 or.
7. Arturo Campión: *Obras de D. Juan Iturralde y Suit, Cuentos, leyendas y descripciones euskaras*, Pamplona, (1.alea), 1912, LVIII or.
8. *Revista Euskara*, VI. urtea, 1883, 52. or.
9. *Revista Euskara*, VI. urtea, 1883, 4. or.
10. *Revista Euskara*, VI. urtea, 1883, 319-320. or.
11. Itzulpena gurea.

**CLINIQUE
DENTAIRE**

34 700 994



